

ASTEKO GAIA JOKOAREKIN ARAZOAK · GEHIGARRIA TXIKIBARREN
KULTURA AMAIA ASTIGARRAGA TXAPELDUN SOINU ZAHAR TXAPELKETAN

BARREN

ASTEKARIA

EL GOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko martxoaren 12a/XII. urtea/480. zkia



JAI OBERRIENTZAKO IGERIKETA IKASTAROAK

Sabeletik igerilekura

"HAURRA EZ DA BETE BEHAR DEN ONTZIA, PIZTU BEHAR DEN SUA BAIZIK" (Francois Rabelais)

**espainiar estatua
salatzera goaz!**

MARTXOAK

14an



BOZKATU AUTODETERMINAZIOA

**Elkarrizketa
da bidea!!**



**euskal
herria**

AITORTU ★ ERRESPETATU



Kanpainako kontuak?

Hauteskondeek betaurrekoen kristalak lurrindu dizkidate. Egunkaria hartu eta sekzio guztietako berriak etziko bozekin lotuta ikusi ditut, titular handienetatik hasi eta txikieneraino. Orriak binaka pasatu ditut, irratiko diala ere batetik bestera propaganda politikotik ihesi ibili dut, eta zapping-aren eraginez hatz potoloa dardarka daukat oraindik ere. Politikarien berbak entzutean zaharrak berri ! pentsatu dut. Baina halako batean horra hor non agertu zaigun perla: "Euskal Herria" kontzeptua eskoletako liburuetatik desagerrarazteko agindu du Madrilgo Gobernuko ordezkariak.

Hauteskunde kanpainaren barruko kontuak direla esan dute askok, baina horrek bost axola. Historiaz eta kulturaz (bertokoaz) ezer gutxi dakiela erakutsi du, baina ez zaio aurpegia gorritu.

Jakin badakigu Euskal Herria ez dela abertzaleena, ez eta abertzale ez direnena. Horiek denak existitu baino lehen ere bazen Euskal Herririk. Ikusi beharko duguna da horien ondoren ere oraindik izango ote den.

Bitartean, Tapiak eta Leturiak kantatzen zuten moduan,

Hauteskondeak dira hemen

urtean lau aldiz bederen, aurretik denak irabazle eta berdin ondoren.



Osasuna pertsona batek eduki dezakeen altxorretako bat da. Eta altxor hori norberak mantendu egin behar du eta ez ahal duenean bakarrik; beti eduki beharko luke atentzio minimo bat eta publikoa. Are gehiago, gobernuak bere biztanleen osasunaz kargu hartu beharko luke. Hau da gobernu batek eduki beharko lukeen zerbitzuetariko bat. Beste batzuk badaude, besteak beste, hezkuntza, oinarriko elikagaiak erosteko ahalmena, argia, ura, etabar.

Herri pobreetan, gobernuak edo mandatariek nahikoa dute beraien poltsikoak diruz betetzea edota izugarriko armada edukitzearekin populazioa menpean edukitzeko. Baina zer gertatzen da herri aberats eta indartsuenetan. Honen kasu garbia munduko salbatzailean dugu, AEB-tan, alegia. Osasuna publikoa ez da, pribatua baizik. Edonork ezin du ospitale edo mediku kontsulta publiko batera jo, ez baitago. Hain tamalgarria da beraien egoera, seguru pribaturik kontratatzen ez badute kasu gehienetan jai dutela. Gainera, seguru pribatu hauek ez dira bat ere merkeak eta zenbat ordaintzen den arabera, hainbestearainoko atentzioa daukazu trukean. Gelditzen zaien aukera bakarra pobreentzako ospitale batera joatea da eta hauek gainera, kasuak kasu, ez dituzte zerbitzu minimoak eskaintzen eta medikuntzako arlo gehienak diru faltaz ezinekoak dira gaixoari. Batzuek kalera jotzen dute, diru eske, enplegu fijoerik edota ingresu minimorik ez dutenez horretara behartuta daudelako. Ideia bat eduki dezazuen, ebakuntza txikiak 3000 eurotik gora balio ditu ospitale pribatu batean.

Gure lurreko salbatzaileak ez du bere biztanleen osasunaz kargu egiteko adina dirurik baina bai munduan zehar gerrak eta gatazkak sortzeko 70.000 milioi euro. Hau bai paradoxa.

Jokin Martinez

Kexak	5
motZ MotZ.....	8
gehigarria	13
kiRolak	20
aGenda	24



► *San Roke auzoko bizilagun batek esan digunez, kiroldegira jende guztia kotxez joaten da, eta edozein tokitan aparkatzen dute: "Arratsaldeko 19:00ak aldera kiroldegi aurrea kaos bat izaten da. Ez dago aparkatzeko lekurik, baina askotan kotxez pasatzeko lekurik ere ez da egoten. Kotxeak gaizki aparkatuta egoten dira, eta udaltzainak ez dira agertzen multak jartzera. Txarrena da, gaizki aparkatutako kotxe bat jotzen badugu, gainera ordaindu egin behar diogula. Tokatzen zaionak, ea orden apur bat*




► *Einbiou Herri Plataformako kide batek esan digunez, kalean jarritako ezker abertzalearen kartelak kendu egin dituzte: "Hauteskundeetara aurkezten lagatzen ez diguten arren, gu ere, geure kanpaina egiten ari gara, eta kalean gure kartelak kendu egiten dituzte. Ez dakigu herritarrek diren, edo espresuki horretarako kontratatutako brigadaren bat. Ez dago eskubiderik!"*



► *Emakume batek esan digunez, joan zen larunbatean, estazio inguruan bere kotxeari eta han zeuden beste mordoska bati, ispiluak puskatu zizkieten: "Ez dago eskubiderik. Astero-astero gertatzen dira horrelakoak, eta ez dira beharrezko neurriak hartzen. Larunbatetan kristalak puskatzen dituzte, dena zikinduta uzten dute, eta inork ez du hori ebitatzeko ezer egiten".*

► *San Pedroko bizilagun batzuek, auzoko alkatea txalotu nahi dute, elurra egin zuen egunetan auzokideei eskaintako arretagatik: "Elurra egin zuen egunetan bideak oso gaizki zeuden, eta alkateak lan handia egin zuen haiek garbitu zitzaizten. Berari esker ez genuen inolako arazorik izan. Eskerrik asko!"*


Barreak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2004#154

URETAN

Musikazaleak zaretenok gogoan izango dituzue Nirvana taldea eta hauen "Nevermind" disko ezaguna ere. Diskoaren azala ere gogoan izateko modukoa zen, ume jaiotze berri bat igerilekuan dolar baten atzetik ageri zen bertan. Hain justu irudi horixe etorri zaigu burura Olaizaga kiroldegiko igerileku txikira heldu garenean. Amaren umetoki erosoak duela gutxi utzi duten haur jaiotze berriak aurkitu ditugu uretan plisti-plasta, arrain txikiak balira bezala.



Duela aste batzuk hasi ziren jaiotzerientzako ikastaroak Olaizaga kiroldegian. Hiru taldetan banatuta 24 haur ari dira ikastaroetan parte hartzen. Amaia Revert elgoibartarra eta Laura Sclavi uruguaiarra dira irakasleak. Laura Soin Hezkuntzan lizentziatua da eta duela bi urtetik Durango bizi da. Jaiotzerientzako igeriketako ikastaroetan aditua da Uruguayn hainbat ikastaro eta lan egin baititu alor honetan. "Han 1980. urtean hasi ziren teknika hauek erabiltzen. Argentinan, berriz, 1960. urtean hasi zirela lehen frogaketekin dakit eta esperientzia aberatsa dute. Euskadin hutsune bat zegoen alor honetan, baina gero eta herri gehiago dira zerbitzu hau martxan jarri dutenak". Ikastaroan haurren irakaslea izateaz gain, irakasleak prestatzen ditu Laurak, aurrerago klaseak emateko gai izan daitezkeen. Amaia Revert elgoibartarrak, berriz, zortzi haurreko talde baten ardura du.

Hiru hilabete eta bi urte bitarteko haurrekin lan egiten dute. "bi hilabete eta erdiko haurrak onartzen hasi gara, baina hiru hilabetetatik aurrera hobeto egokitzen dira uretara. Hobeto murgil daitezke uretan eta seguruagoa da" azaldu digute.

ZERTAN DATZA?

Uretara egokitze aldi batekin hasten dutela ikastaroa jaiotzeriek azaldu digute irakasleek, "haurrek ura ezagutu eta beldurra gal dezaten saiatzeko gara, aurpegia murgiltzeko beldurra kentzen, alegia. Arnasketa kontrolatzen eta airearen eta uraren artean dagoen aldea ezagutzen irakasten diegu. Horrela, ingurumenera egokituta daudenean, aurpegia uretan sartu ahal izango dute ura arnastu edo irentsi gabe". Ikastaroak iraungo duen hiru hilabetetan aurrerapausu nabarmenak egingo dituzte.

EZ DA IGERIAN IKASTEKO


Ikastaroaren helburua ez da haurrek igerian ikastea, "oraindik mugimendu-koordinazioa garatu gabe daukate eta intelektualki ere ez dira gai igeriketako teknikak bereganatzeko. Etorkizunean igerian ikasteko prozesua motzagoa eta errazagoa izan dadin oinarriak jarri besterik ez dugu egiten. Ikastaro hauetan parte hartzen duten haurrak 4 edo 5 urte dituztenean (igeriketako teknikak ikasten hasteko adina) askoz errazago sartuko dira uretan. Ez dute burua uretan sartzeko beldurrik izango, ezta

PLISTI-PLASTA

ONURAK

Onura fisiko ezin daitezkeen beste abantaila batzuk ere baditu gazte gaztetatik uretan ibiltzeak, "gurasoek esandakoaren arabera, haurrek hobeto lo egiten dute eta jan ere askoz hobeto egiten dute. Igerilekuan ibiltzeak asko lasaitzen ditu. Honez gain, goizago sozializatzeko aukera eskaintzen die. Igerilekura etorriko ez balira ez lukete beste haurrekin harremanetan jarri eta gizarte harremanik izateko aukerarik izango haurtzaindegian edo eskolan hasi arte. Aukera hau ez balute familia kideak izango lirateke gizartearekin duten ia lotura bakarra. Hemen beste haur eta guraso batzuk ezagutu ditzakete".

Haurrek bakarrik ez, gurasoek ere nabari dituzte onurak, seme-alabatxoak ur



azalean leunki eusten dituztenean aurpegietara begiratzea besterik ez dago, "seme-alabek aurrerapausoek, nola galtzen dioten beldurra urari ikusteak poza ematen die gurasoei.

Klasetik klasera egiten dituzten aurrerakuntzak beraien begiekin ikusten dituzte".

GLOTISAREN ERREFLEXUA

Hitz zatar hau trakearen faringerako irekigunea adierazteko erabiltzen da. Gizaki guztiok jaiotzatik daukagu glotiseko erreflexua deritzona, hau da, instintiboki itxi eta



irekitzen dugu irekigune hori. Giza gorputzak duen defentsa mekanismo honek arnas bideetara likidoak sartzea eragozten du trakean dagoen irekigunea itxiz. Bularra hartzerakoan amaren esnearekin ez itotzeko gorputzak duen babesba da. Hau dela eta haur jaio berriak uretan murgildu daitezke eta ez zaie urik sartzen arnas bideetara. Honez gain, haurdunaldian likido amniotikoz inguratuta bizi da fetua. Amniosaren barnean enbrioia esekita mantentzen duen fluido serosoa da likido amniotikoa. Haurrari tenperatura egokian dagoen uretan sartu eta amaren eta aitaren besarkada jasotzeak umetoki barneko bizimodu eroso gogora arazten dio. Horregatik sentitzen dira horren eroso



352.250 euroko aurrekontua izango du Urasandiko eskailera mekanikoen II. faseak


Obrak lau hilabetetan bukatzea aurreikusten dute

Iazko azaroan atera zuen Elgoibarko Udalak Urasandiko eskailera mekanikoen bigarren fasearen proiektua lehiaketara, eta azkenik, Orona eta Bikani enpresak izango dira lan honen arduradunak. Fase honetan, eskailera mekanikoen bi zati berri ezarriko dira, Antonio Benito harategia eta Haur Eskola artean.

352.250 euroko aurrekontua

Bikani enpresak eskailera jartzeko lekuari dagozkien lanak egingo ditu, eta Orona enpresak eskailera mekanikoak ezarriko ditu.

Lurra egokitzeko lanaren aurrekontua 129.800,56 eurokoa da, eta Bikani enpresatik adierazi dutenez, bi hilabetetan amaitzea espero dute.



Bestalde, Orona enpresak 222.450 euro jasoko ditu eskailera mekanikoak ipintzeagatik.

Lau hilabete

Urasandiko eskailera mekanikoen bigarren fase hau lau hilabetetan bukatuta egotea aurreikusten da. Obrak bukatu ostean, Urasandi auzoko bizilagunek eskailera mekanikoen sei zati desberdin izango dituzte: Lehenengo bi zatiak King-Kong-eko zubitik PSOE-Eeren egoitzaraino doaz. Ondorengo bi zatiak, oraindik egin gabe daudenak, Antonio Benito harategitik Haur Eskolaraino joango dira. Bosgarren zatia, parketik Galizia plazaraino doa, eta seigarrena, Galizia Plazatik, auzoaren goiko alderaino.

Iñaki Insaustik jarraituko du jubilatuen egoitzako lehendakari izaten

Jubilatuen Egoitzak joan zen ostiralean, martxoaren 5ean ospatu zuen Ohiko Batzar Nagusia. Beste gai batzuen artean, lehendakari berriaren aukeraketa zegoen, eta berriz ere Iñaki Insausti aukeratu zuten. Beste hautagairik ez zegoenez, duela 10 urte hartu zuen kargua betetzen jarraituko du, beraz, Iñaki



7.604 euro lortu ditu Miski Elkarteak aurtengo kanpaina

Gemma Agirregomezkorta 7.604 Geurrekin abiatu zen joan zen martxoaren 2an Cuscora. Iaz baino 1.604 euro gehiago lortu dira aurtun, eta Gemma gustura gelditu da kanpainaren emaitzarekin. 45 egun pasatuko ditu bertan, eta hemen lortutako dirua modurik egokienean erabiltzen saiatuko da. Cusco eta mendi inguruko beste herri batzuetako 117 haur eskolaratuko ditu, eta aurtun dolarraren balioa euroarena baino baxuagoa denez, gauza gehiago egiteko aukera izango duela adierazi digu Gemmak.

Datuak

Gabonetan ateratako errifekin 3.850 euro lortu ziren. Udala, Gaztetxea, Ikastola, Herri Eskola, Institutua, Danobat, Sabin Osororen erakusketa eta jendeak emandako diruarekin 3.320 euro lortu dira. Bestalde, komertzioetan



jarritako itxulapikoetan 319 euro eta kalean saldutako produktuekin 695 euro lortu dira.

Guztira 8.184 euro bildu ditu Gemmak, baina Perurako bidaiak 580 euroko kostua izan duenez, 7.604 euro geratu zaizkio. Gemmak herritar guztietan eskerrak eman

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Pedro Azpiazu saritu du

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Artisau tradizionalak saritu zituen joan zen otsailaren 27an. Sarituetakoa bat Pedro Azpiazu elgoibartarra izan da. Pedro Azpiazuk grabatu artistikoak egiten ditu. 13 urterekin hasi zen Lucio Uriguenen armagintza tailerrean lanean, eta dagoeneko 40 urte daramatza grabatuen ofizioan. Armagintza industrian egiten du lan, batez ere, baina bitxi gintzan ere aritzen da. Eibarko Grulla arma lantegian bere


jardunaldia amaitzen duenean, eraztun, pultsera eta bitxi dendetatik eskatzen dizkioten beste grabatu berezi batzuk egiten ditu bere tailerrean. Orain arte denbora gehien kendu dion lana, El Quijoteren gainean eginiko 12 plantxako grabaketa izan da. Bestalde, Estatu Batuetako Independentziaren testua grabatu behar izan zuen. Testua inprimategirako prestatua zegoenez, alderantziz idatzi beharra izan zuen, eta ez zen lan erraza izan.



F. Morquecho

Tianjin-eko CSM ikastetxeko zuzendari taldeak prestakuntza ikastaroa egingo du IMHn

Martxoaren 8an hasi ziren Txinako Tianjin-eko CSM ikastetxeko zuzendaritza ardurak eramateko gai izateko prestakuntza ikastaro trinkoa egiten. Zuzendari gaitasunak ikasteko helburuarekin, plan estrategikoa, gestio plana, zuzendaritza gaitasunak eta erabateko kalitatearen kudeaketarako erremintak ikasiko dituzte besteak-beste. Hilabetez egongo dira gure artean 5 txinatar hauek, eta beraien egonaldian euskal erakunde



ofizialak eta makina erremintaren sektoreko fabrikatzaileak bisitatuko dituzte.



25 zuhaitz landatuko dituzte Zuhaitz Egunean

Datorren ostegunean, hilaren 18an, Zuhaitz Eguna ospatuko da Elgoibarren. Aurtengoan, LH 6. mailako ikasleak izango dira zuhaitzak landatuko dituztenak. Goizeko 9:15ean abiatuko dira abereen hiltegi zaharretik, eta Udaleko lan taldearekin batera, Urruzuno bailarako malda batean, 25 zuhaitz landatuko

Arrantzaleen Pasealekua ireki dute

Deba ibaiko kolektorearen gainean egin duten Arrantzaleen Pasealekua joan zen martxoaren 4an ireki zuten. Santa Ana kaletik Giza Eskubideen parkeraino doa zati bat, eta ondoren, Plazatik Madalaraino. Oinezkoentzako pasabidea da. Ibaiko uraren gainetik, 1,50 metroko altuera dauka, eta zabalera 1,50 metro tokirik estuenean eta 3 metro zabalenean.



Pertsona bat hil zen kamioiak harrapatuta

Istripua izan zen joan zen astelehenean, hilaren 8an, Altzolan. Gaueko 21:00ak aldera, N-634 errepidean, Nafarroa matrikuladun Man kamioi batek pertsona bat harrapatu zuen. Ezin izan zituen kolpeak sortutako zauriak jasan, eta hil egin zen.

Ikastaro berriak KZgunean

Interneten nabigatzen hasteko, 20 orduko IT KZgunea ikastaroa antolatu dute. Besteak beste, ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaileak, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, bideokonferentzia... Ikastaro hau martxoaren 8tik 22ra, 16:00etatik 18:00etara, martxoaren 8tik 22ra, 18:00etatik 20:00etara eta martxoaren 25etik apirilaren 7ra 18:00etatik 20:00etara eskainiko da.

50 urtetik gorakoentzat, 10 orduko Nagusiweb ikastaroa eskainiko dute martxoaren 29tik apirilaren 2ra, 16:00etatik 18:00etara. Edukien artean, ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, informazioa bilatzea, posta elektronikoa eta txata eskainiko dira.

Bestalde, bi mintegi eskainiko dira: Martxoaren 2an "aurkitu zure etxebizitza" eta martxoaren 23an eta 24an "banka elektronikoa".

16 urtetik gorako guztiek, doan nabigatzeko aukera izango dute.

Martxoaren 14an Espainiako gorteetarako hauteskundeak ospatuko dira

ZEINEK IRABAZIKO DITU HAUTESKUNDEAK?



URKO SANCHEZ

18 urte, ikaslea

Nahixo nuke besteren batek irabaztia, baina PPk irabaziko ditxu hauteskundiak. Dana dala, ez du gehiengo osoa lortuko. Euskaldunontzat PP edo PSOEk irabazi berdina izango litzateke.

RESTI RODRIGUEZ

55 urte, etxeoandrea

Ez nuke nahi, baina PPk irabaziko dituela uste dut. Hala ere apur bat jaitsi egingo da, ez du gehiengo osoa lortuko. PSOEk irabaziko balu, hemengo egoera aldatu egingo litzakete.



MANUEL NOVA

49 urte, zentsuko agentea

PPk irabaziko du, baina gehiengo osorik gabe, PSOEk gora egingo du. PSOEk irabaziko balitu, Euskal Herriko egoera aldatu egingo litzatekeela uste dut.

VENETA MEDAROVA

30 urte, irakaslea

Alderdi Popularrak irabaziko ditu, baina oraingoan ez dute gehiengo osoa lortuko. PSOE ez dut uste gobernurako aukera hobea denik, hemengo egoera politikoa ez litzateke asko aldatuko.



JULIO BUENO

50 urte, ardo saltzailea

Justu ibiliko dira, baina aurten PSOEk irabaziko ditu hauteskundeak. PP asko jaitsiko da. Gorakadarik altuena Katalunia eta Euskadiko alderdi nazionalistek izango dute.

EDURNE GABILONDO

40 urte, inmobiliaria agentea

Nire ustez, Alderdi Popularrak irabaziko ditu, baina apur bat jaitsi egingo dela uste dut, eta ez dut uste gehiengo osoa lortuko duenik. PSOEk irabaziko balu hemengo egoera desberdina izango litzateke.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



Ludopatia: jokoa kontrolatu ezina

Gure Argia Ondarruko Elkarteak antolatuta, ludopatiari buruzko hitzaldia izango da datorren asteazkenean, hilaren 17an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, arratsaldeko 19:30ean.

Jokoarekin arazoak dituzten pertsoneri, eta beraien senideei zuzendutako hitzaldia izango da, batez ere. Gaixotasuna gainditzen ari diren bi lagun eta haien senideak izango dira beraien esperientzia kontatuko dutenak. Hitzaldia gazteleraz izango da, baina ez dago inongo arazorik galderak edo beste edozein komentario euskaraz egiteko.

Sarritan, gaixoek ez dute onartzen jokoa ezin dutela kontrolatu, beraz, oso garrantzitsua izango litzateke, honelako kasuren batean murgilduta dauden pertsonen senideak hitzaldira gerturaztea.

Nola onartu jokalaria konpulsiboa zarela?

- ▷ Norberak bakarrik hartu beharreko erabakia da.
- ▷ Jokoarekin galerak dituzu.
- ▷ Ez zara kalera ateratzen, ez daukazulako dirurik.
- ▷ Dirua galtzean, berehala berreskuratzeko beharra sentitzen duzu.
- ▷ Lanerako, ikasketetarako, edota harremanetarako denbora galtzen duzu jokoaren ondorioz.
- ▷ Lagun eta senideengandik urrun sentitzen zara.
- ▷ Jokoa gehituz doa.
- ▷ Diru eskaerak gero eta handiagoak dira.
- ▷ Diru galerak, gezurrekin estaltzen dituzu.
- ▷ Jokoa buruz hitz egiten den elkarrizketak ebitatzen dituzu.
- ▷ Jokatu izanaz lotsatu edo damutu egiten zara.

Jokalaria konpulsiboaren sintomak:

- ▷ Jokatu egiten duela esateak amorratu egiten du.
- ▷ Jokatzeko duenean gainean daukan diru guztia xahutu arte egiten du.
- ▷ Senideekin arazoak izaten ditu, ez du hitz egiten, bakardadean murgiltzen da.
- ▷ Errealitatea ezin du onartu.
- ▷ Diru asko galdu ostean, berriz jokatzeko, galdutakoa berreskuratzeko asmoz.
- ▷ Depresioa eta desesperazioa.
- ▷ Adiskideei, lankideei edota senideei dirua eskatzen hasten da.
- ▷ Soldata aurreratzea eskatzen du,

Zer aurkituko dugu Jokalari Anonimoen taldean?

- ▷ Adin guztietako pertsonak.
- ▷ Zure arazoa ulertu eta konpartitzen duten pertsonak.
- ▷ Jokoaren aurrean inpotentzia sentitzen dutela onartzen dute.
- ▷ Jokoa utzi nahi dutela onartzen dute, eta bakarrik ezinezkoa da.
- ▷ Inork ez du albokoa epaituko.
- ▷ Albokoen esperientziak entzutea, norberarentzat aberasgarria da.
- ▷ Anonimotasuna gordeko da terapietan lasai sentitzeko.
- ▷ Jokatu gabe bizitzen erakutsiko dizute.

Jokalari Anonimoen Elkarteak: "Gaur ez dut jokatu"

Jokoarekin arazoak dituzten pertsoneri laguntzeko Jokalari Anonimoen Elkarteak dago. Gaixotasun bera daukaten pertsonak osatzen dute talde hau, eta helburua, gainontzeko kideei jokoa lagatzeko indarra ematea da. Bertan parte hartzeko baldintza bakarra, jokoa uzteko gogoa izatea da: "Gaur ez dut jokatu", esaldia da elkartearen lema. Joko konpulsiboa gaixotasun naturala da, ezin da sendatu, baina gelditu egin daiteke. Jokalari Anonimoen Elkarteak Bilbon eta Ondarrun ditu goitzak, eta beraiekin harremanetan jartzeko 699 377 520 telefonora deitu daiteke.

IMH sarien II. edizioa

IMH bertako ikasleak saritu nahi ditu, eta iazko ikasturtean egin zuen moduan, aurtengoan ere, IMH sariak banatuko ditu. Martxoaren 30ean izango da ekitaldia, eguerdiko 12:30ean IMHko areto nagusian. Hiru sari banatuko dira: ikasle ohi aipagarria, 2003-2004 ikasturteko ikaslea eta ikasturte bereko Fabrikazio Arloko ikaslea.

IMHko ikasle, ikasle ohi, irakasle, langile eta zuzendaritzak eta baita enpresa fundatzaileek eta IMHrekin elkarlanean jarduten duten enpresek aurkeztu ahal izango dituzte sarietan parte hartzeko hautagaiak, martxoaren 16a baino lehen.

Veneziako ikasleek Venettoko hiriburuari buruzko hitzaldia eskaini zuten

Turismo ikasketak egiten ari diren Veneziar ikasleak izan ditugu Elgoibarren. Herri Institutuarekin elkartrukean, astebete pasatu dute gure herrian ikasle hauek. Euskal Herriko hotel eta nekazal turismo etxeak ikusteko aukera izan dute, eta esan digutenez, izugarri gustatu zaie.

Beraiek ere, Venezia gerturatu nahi izan digute. Horretarako, joan zen martxoaren 3an, hitzaldi berezi bat eskaini zuten Kultur Etxeko sotoan. Ikasle bakoitzak Venettoko lurralde bat aukeratu zuen, eta berari buruzko informazioa eman zuten.

Apirilean Elgoibarko Institutuko Administrarritza eta Merkataritzako ikasleak joango dira Veneziara. "Agroturist" enpresa simulatua dela-eta, Euskal Herriko turismoa



salduko dute Venezian. Bertako inguruak bisitatzeaz gain, azoka txiki bat jartzeko asmoa daukate, Euskal Herriko produktu tipikoak saltzeko. Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Hezkuntza Sailak dirulaguntzak eman ditu proiektu hau aurrera eramateko, eta Euskal Herriko turismoari buruzko informazioa

60 haur izan ziren antzerki txokoa

A txutxia maika Aisialdi Taldeak antolatuta, antzerki txokoa izan zen joan zen larunbatean, hilaren 6an, Kultur Etxeko sotoan. Lehen Hezkuntza 1,2, 3 eta 4. mailako 60 haur inguru bildu ziren guztira. Taupada Antzerki Taldeko kideekin, zirkoaren munduan barneratu ziren haurrak.



Kultur Etxea zirko bihurtu zen larunbat goizean, eta haurrak mozorrotuta, beraiek izan ziren protagonista nagusiak. Animazio jolas desberdinetan hartu zuten parte, mugimendua, sormena eta irudimena landuz. Antolatzaileek esan digutenez, oso ondo pasatu zuten denek.

Ikastolako 6. mailakoak Pagoetan izan ziren

Ikastolako 6. mailakoak Pagoetako Natur Parkean egon ziren joan zen otsailaren 23an. Bertan, klasean ikasitako hainbat eduki landu eta aztertzeke aukera eduki zuten: ekosistema bat zer den, basoko bizidunak eta erlazioak, elika kateak eta elika sareak, basoko bizidunak elikaduraren arabera sailkatu... Irteera oso interesgarria izan zen eta ekintza praktikoak burutzeko aukera ere izan zuten. Eskolako gaiak lantzeaz gain, egun oso polita pasatu zuten.



Herri Eskolakoak Andutz mendian izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Andutz mendira egin zuten irteera joan zen otsailaren 15ean, Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. 75 lagun elkartu ziren guztira. Itziarko industrigunetik abiatu ziren, eta iparraldetik igo zuten mendia, itsaso aldetik, alegia. Goian laino itsua zegoela kontatu digute, baina inor ez zela galdu, eta oso ondo pasatu zutela. Hurrengo mendi irteera datorren igandean, martxoaren 14an izango da. Morkaiko Mendizale Elkartearekin, Aretxabaletan egingo den Ibilaldi Neurtura joango

DBH BARRERE

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 9. gehigarria

Sutondoan ipuinak kontatzen hamaika ordu igaro zituzten gure arbasoek. Gaur egun badirudi telebistak ipuin horiek ordezkatu dituela, hala ere oraindik badaude mundu miresgarri batera eramaten gaituzten ipuin kontalariak. Peio Añorga oiartzuarrarekin egon gara eta ipuin kontaketaren sekretuez galdetu diogu.

Peio Añorga
Ipuin kontalaria

Nola iristen da pertsona bat ipuin kontatzaile izatera?

Lehendabizi gogoia izan behar duzu eta sinistu egin behar duzu egiten ari zaren horretan, konfiantza kontua ere bada. Bestalde, kontalaria izatera iristea ipuinen eskuetan dago eta batez ere entzuleen eskuetan. Zuk bidean dauden gauzak erakusten dizkiezu entzuleei, baina gero beraiek animatzen zaituzte bidean aurrera jarraitzen. Behin esan nuen, kontalariak jartzen duela ipuinaren txalupa edo urontzia eta entzuleek ematen dutela haizea. Haize horrekin, arnas horren bitartez joaten zara urrunago.

Zer ezaugarri izan behar ditu ipuin kontatzaileak?

Batez ere konfiantza besteengan, maitasuna, umiltasuna eta entzuteko gaitasuna.

Eta nola girotu behar da ipuin


bat?

Batzuetan bero egoten da giroa, kasu hauetan erdia egina dago. Berotasun hori sumatzen duzu eta ondo sentitzen zara hasieratik. Girorik ez badago, jela hori urtzen jakin behar da. Horretarako, alde batetik, dagoena onartu behar da eta bestetik, zure baitan dagoen onena besteei eskaini behar zaie. Hala ere, badaude gauza teknikoak ere: leku bildua izatea, isiltasuna egotea leku horretan... baina aipatu behar da giroa askotan ez dagoela norberaren eskuetan, orduan betelana egiten du ipuin kontalariak.

Nondik ateratzen dituzu ipuinak?

Ipuin bilatzaile handiak izan ditugu: Barandiaran, Azkue.. Gaur egun publikatzen direnak ere irakurtzen ditut. Hau da, ahozko tradizioetik eta publikatzen diren liburuetatik ateratzen ditut ipuinak.

Ohera joan aurretik seme-alabei



MOTX-MOTXIAN

Amalera onak ez al dira "politikoki zuzenegiak"?

Haur txikienei gehien gustatzen zaizkienak dira hauek, baina ipuin batek dosi klasikoa eta modernoa izan behar ditu.

Gaur egungo haurrak zer motatako ipuinekin geratzen dira liluratuta?

Betiko ipuinek arrakasta handia dute. Beldurrezkoak, bukaera ona dutenak.. emozioa sortzen dutenak batez ere.

Jeinuok hiru desio eskainiko balizkizu?

elkar entzutea, denbora hartzea, eta bizitzarekin konektatua egotea.

Ipuin kontalaria izango ez bazina?

Ez nintzateke pertsona izango!

Norekin pasako zenituzke 1001 gau ipuinak kontatzen?

Ondo entzuten dakien edonorekin .

Grimm anaiak edo Tim Burton?

Biak, baina haurrei Grimm anaiak gehiago gustatzen zaie

Sar dadila kalabazan eta ager dadila...

Elkar artean sortu dugun dantzan

Nolakoak izango dira ipuinak etorkizunean?

Forma aldetik ez dakit, baina ziur izango direla.

"Kontalariak jartzen du ipuinaren txalupa eta entzuleek ematen dute haizea"

IRAKASLEARI

MIREIA
MURUAMENDIARAZ

BATXILERGO 2. MAILAKO IRAKASLEA

**1 Zer da umeek erakutsi dizutena?**

Danetik. Baina gehien bat pazientzia eukitzen.

2 Zergatik irakasle?

Karrera amaitzean horrela suertatu zelako. Orain gustuko dudalako.

3 Inteligentzia, lana ala zortea?

Dirua eta zorientasuna ahaztu zaizkizu.

4 Anekdotak bat?

Ikasleek azterketatan erantzuna ez dakitenean idazten dutena beti da "anekdotikoa".

5 Zer ezabatuko zenuke borragoma batekin?

Mundu osoan zehar gertatzen diren injustiziak.

6 Nora joango zinateke zure ikasleekin?

Puff!!! Guziekin batera? Bakarrik inora.

7 Bizitzak erakusten duen lekziarik onena?

Jendea ezagutu behar dela eritzi bat edukitzeko.

8 Ordenagailu bidez emango al dira klaseak etorkizunean?

Espero dot ezetz. Lan honen gauzarik onena pertsonekin aritzea da

9 Ikasleek galdetu dizuten galderarik bitxi-ena?

Bat gogoratzea zaila, galdera bitxi gehiegi.

NOLAKO ENBORRA... HALAKO

AITOR LOIDI
aita

GALDERAK

1. Aitarekin/semearekin pasatu duzun unerik hunkigarriena?
2. Nora joango zinateke oporretan? Zeinekin?
3. Noiz sentitu duzu benetako beldurra?
4. Hil eta gero?
5. Pizza, hamburgesa ala txuleta bat?
6. Zer animalia gustatuko litzaizuke etxean edukitzea?
7. Diru mordoak tokatu zaizu eta arratsalde bat duzu gastatzeko.
8. Zer da zure aitaz/semeari gehien gustatzen zaizuna?

IGOR LOIDI
semea

- 1 Momentu guztixak dira hunkigarriak
- 2 Mendi aldera familixiakin
- 3 Gaztetan, baserrira bidian zaban iluntasunakin
- 4 Bizitza ahalik gehien disfrutatzea dala onena uste dot
- 5 Txuleta edar bat, dudarik gabe
- 6 Etxia ez da animaliak eukitzeko lekuri onena
- 7 Ilusio bat bete; itsasalde edo mendian apartamentu bat
- 8 Ematen daban maitxasuna, oso maitakorra da
- 9 Ezbeharrak eragozten saiaturko nintzateke

- 1 Berarekin mendira juten naizen bakoitzian 1
- 2 Santa Sesanara (Katalunia) familixa guztixakin 2
- 3 Mamuak agertzen ziren pelikula bateko anuntziua ikustian 3
- 4 Lurperau eitzen zaitxue eta gorputzeko arimia zerura juten da 4
- 5 Pizza 5
- 6 Dordoka bat 6
- 7 Pixkat itxulapikora, 10 etxe erosi eta pobrien artian banatu 7
- 8 Berakin egun guztixa pasatzia 8
- 9 Lapurretak eingo nitxuan 9

Txiki inkesta

Zer da gobernua?

9 urte Lucia Bilbao

Lurralde batean agintzen duen pertsona multzoa.



9 urte Ana Babarro

Tontakeria bat da. Jose Maria Aznar, Jose Luis Rodriguez Zapatero eta Mariano Rajoyren borroka da. Barruan lehendakariak, poli-tikoak eta



9 urte Aitor Alberdi

Nik uste dut Aznarren eta Ibarretxeren arteko borroka dela.



9 urte Ruben Luis

Politikariak egoten diren tokia.



Zer egingo zenuke lehendakaria izango bazina?

Nagore Mier 8 urte

Aginduak emango nituzke, eta gaizki-leak kartzelan sartu. Gauza onak ere egingo nituzke.



Eneritz Lopez 8 urte

Behartsuei lagunduko nieke eta beraiantzat herri berri bat eraikitzea aginduko nuke.



Elena Ferreiro 9 urte

Agindu batzuk emango nituzke: indarkeriarik ez egotea, jendea erres-petatzea, maltzurak kartzelan sartzea eta gauza onak egitea.




Miren Viñe 8 urte

Pertsonekin jatorra izango nintzateke eta pobreei lagunduko nieke.



Paristik natorren **artista bat naiz**



Andrea Arce
L.H. 4. maila- Herri Eskola

lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Aurreko lehiaketako irabazlea: **Eneko Cerezo**

Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA Elhuyar-ek eskainitako mahai jokoa ("GIPUZKOA ZURE ESKU" MAHAI JOKOA + CD-ROMa)



Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:
barren@topagunea.com

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.



OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
